

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

5082

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 10ekoa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez 2025eko ekitaldian dirulaguntzak ematen baitzaizkie toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak susta eta babes ditzaten.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariaren 2025eko apirilaren 16ko Ebazpenaren bidez argitara eman ziren oinarriak eta 2025eko deialdia, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitzaizkie toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak susta eta babes ditzaten.

Bestalde, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagokio kontsumo-arloko eginkizunak betetzea, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan.

Hala, 31 erakundek aurkeztu zuten eskabidea 2025eko apirilaren 16ko Ebazpenaren 6. artikuluan ezarritako epean, ebazpen horretan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko.

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko eratutako epaimahai kalifikatzaileak proposamena egin du, 2025eko urriaren 23an.

Ikusi dira aipatutako lege-manuak, eta, oro har zein berariaz, gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak; beraz, honako hau,

XEDATZEN DUT:

1.– Dirulaguntzak ematea kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoen (KIUB) funtzionamenduko eta jarduerak egiteko gastuetarako; 1.114.367,89 euro guztira, honela banatuta:

Onuraduna	Dirulaguntza guztira (eurotan)	2025 (eurotan)	2026 (eurotan)
Ermuko Udala	28.980,50	21.735,38	7.245,12
Portugaleteko Udala	58.902,70	44.177,03	14.725,67
Irungo Udala	60.000,00	45.000,00	15.000,00
Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.	12.039,71	9.029,78	3.009,93
Arabako Mendialdeko Kuadrilla	5.006,72	3.755,04	1.251,68
Hernaniko Udala	32.736,06	24.552,05	8.184,01
Tolosaldea Garatzen, S.A.	32.352,78	24.264,59	8.088,19
Andoaingo Udala	20.026,91	15.020,18	5.006,73
Goierriko Ekimena, S.A.	56.193,17	42.144,88	14.048,29
Zierbenako Udala	7.284,30	5.463,23	1.821,07
Urola Garaia Udal-Elkartea	19.811,92	14.858,94	4.952,98
Iraurgi Lantzen, S.A.	19.461,72	14.596,29	4.865,43
Getxoko Udala	57.995,40	43.496,55	14.498,85

Onuraduna	Dirulaguntza guztira (eurotan)	2025 (eurotan)	2026 (eurotan)
Laudioko Udala	4.098,64	3.073,98	1.024,66
Elgoibarko Udala	11.489,17	8.616,88	2.872,29
Trapagarango Udala	13.408,47	10.056,35	3.352,12
Forlan	20.615,94	15.461,96	5.153,98
Oarso Aldea, S.A.	58.902,70	44.177,03	14.725,67
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa	58.902,70	44.177,03	14.725,67
Enkarterriko Mankomunitatea	51.539,86	38.654,90	12.884,96
Barakaldoren Garapen Integralerako EA Inguralde	60.000,00	45.000,00	15.000,00
Eibarko Udala	31.668,61	23.751,46	7.917,15
Santurtziko Udala	60.000,00	45.000,00	15.000,00
Donostiako Udala	58.902,70	44.177,03	14.725,67
Uribe Kosta Zerbitzu Mankomunitatea	60.000,00	45.000,00	15.000,00
Sestaoko Udala	31.330,89	23.498,17	7.832,72
Bilboko Udala	60.000,00	45.000,00	15.000,00
Vitoria-Gasteizko Udala	60.000,00	45.000,00	15.000,00
Etxebarriko Udala	6.955,10	5.216,33	1.738,77
Erandioko Udala	41.231,89	30.923,92	10.307,97
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	14.529,33	10.897,00	3.632,33

2.— Dirulaguntzak ematea kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoek (KIUB) egiten dituzten ikuskapen-jardueretarako; 28.801,47 euro guztira, honela banatuta:

Onuraduna	Dirulaguntza guztira (eurotan)	2024 (eurotan)	2025 (eurotan)
Irungo Udala	8.301,47	6.226,10	2.075,37
Bilboko Udala	2.125,00	1.593,75	531,25
Vitoria-Gasteizko Udala	18.375,00	13.781,25	4.593,75

3.— Kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoen (KIUB) ekipamendu informatikorako dirulaguntzak ematea, 9.998,98 euro guztira, honela banatuta:

Onuraduna	Dirulaguntza guztira (eurotan)	2024 (eurotan)	2025 (eurotan)
Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.	567,58	425,69	141,89
Goierriko Ekimena, S.A.	944,65	708,49	236,16
Donostiako Udala	618,47	463,85	154,62
Etxebarriko Udala	485,24	363,93	121,31
Erandioko Udala	7.384,04	5.538,03	1.846,01

4.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

5.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 10a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,
ANA MARÍA SÁNCHEZ HERRÁEZ.